

MEZA-LIBURUA

Abade-gai etxean ikasle giñanean, Gasteiz'en Kondairako irakasle genduan Zunzunegi'tar Jose Jaunari itaun au egin neutsen Sortaldean Zirilo ta Metodio santuak artu eben jokabide zuzena azaldu euskunean: «Noiz elduko da gure eleizetan euskeraz mezak esateko eguna»? Eta bere erantzuna ez zan izan pozgarria: «Bear ba'da beste berreun urte barru-edo beste Eleiz-Batzar Nagusi bat egiten danean». Zorionez, eta Jon XXIII'ari eskerrak, aldiak asko aurreratu dira eta uste genduan baiño be lenago etorri zan egun pozgarri ori.

Baiña ori orrelan izan arren, kondaira luzean eta milla urte baiño aldi luzeagoan latiña nagusi izan arren, Eleizeak bere ikastola-lana egin dau, batez be berbaldien eta katekesis-lanen bidez. Garai oneri buruz benetan gogoangarria izan zan EUSKERA-ZALEAK gertatutako igazko Bizkaieraren astean Rementería'tar Jose Maria abadeak emon eban berbaldia, gero ZER aldizkarian oraintsu argitaratu dana: Arduratsuak ziran Kalagurri'ko Gotzaiñak euskaldunai euskeraz eta bizkaitarrai bizkaieraz kristiñau-ikasbidea azaltzeko.

Jakiña, ez da Eleizearen elburua izkuntza irakastea baiña bai erri bakoitxari bere izkuntzan Barri Ona emotea eta erria barri on ori egokiro ulertu dagian gertatzea.

Zelako Euskerea?

1968.n urtean Euskaltzaindiak Arantzazu'n egin eban batza-

rra ezkerro, beste arazo mingarri bat sortu jaku euskaldunai: Zelako euskerea erabilli Eleizan? Batua ala euskalkia? Eta oraintsua-go bizkaieraren barruan beste arazo bat: Zelako idazkerea, ortografia erabilli? Erriak beti erabilli dauana ala goitik beera ezarri nai dauskuen idazkera barria, *h* ta guzti? Umekeriak dirudie, baiña ez dira umekeriak.

Nasteen artean Meza-Liburuak jokabidé bat artu bear izan dau eta artu dau. Ez dala oso egokia? Eritxiak dagoz, eta eritxi ezbardinén artean aukera bat egin bear izan dabe egilleak. Eta ontzat artzen dogu aukerapen ori, naiz ta esango dogun lez, dan-danean batera etorri ez. Beintzat ez da artu erriak nekez ulertuko leuken batua, ez eta ulertzeko kaltegarri izango zan idazkera barria.

Batuaren bideetan, Bergara'ko Batzarrean (1978'an) euskerarik ederren lez agertzen zan Orduen liturjiarena, eta beste bide batzui setakeriz jarraitu ba'jake, ori norki batzuren arazoa da. Antzeko zerbait esan geinke Meza-Liburuaren bizkaiereari buruz, naizta jakingarri batzutan zerbait aldatzea eskatu, gero agertuko dogun lez. Bizkai'ko Eleizeak ondo egingo leuke jokabide ori bere agiri guztietan artuko ba'leu. Agiririk geienak euskera onean agertzen dira, baiña ba-dira ain egokia ez daukenak be.

Mezearen garrantzia

Oraingoz mezeak edo Eukaristiak, fedearen ospakizun lez daukan garrantziā alde batera itzita, euskerearen arloan be garrantzi aundia daukala Bizkai'ko Euskaldunentzat esan bear dogu: Millak eta millak dira oraindiño ospakizun orretarako alkartzen garan bizkaitarrak. Eta lenengo zatian Barri Ona zabalteko bide be ba-da, euskaldun askorentzat bide bakarra edo nagusia beintzat. Eta fedea daukenak ospatzeko, ondo ulertu ezkerro, erarik egokiena. Baiña Barri Ona ezagutzean eta ospatzean epelak diran kristiñau asko eta asko, oraindiño, oitura utsak eraginda joaten dira mezatara, tamalez, baiña asko orreintzat be bere garrantzia dauka mezeak eta mezako euskereak.

Meza-Liburua

Eukaristia euskeraz ospatzeko baimena emon zala urte batzuk, ainbat urte igaro izan arren, eleizkizunetarako ta mezarako liburuai buruz, gure egoera ez da izan egokia. Liburu txikiak eta asko erabili bear izan doguz. Azkenez, joan dan urtean eldu jaku Meza-Liburu ederra eskuetan eukiteko era. Ordua zan. Eta irakurgaietarako beste liburu eder bat be laster izango dogula eskuetan esan dausku lan ori egiten dabenen arteko dan Rementería'tar Jose Maria abadeak. Baiña olako lanak astiro ta zeatz egin-bearrekoak izaten dira eta orregaitik «laster» ori ez da ain laster izango. Meza-Liburuari itxaron geuntson lako eroape-naz itxaroten ba'dogu, elduko da bere eguna.

Meza-Liburu au, irakurleak ikusi daiken lez, ainbeste goratu, txalotu ta maitatu arren, izan bekit zillegi, azterpena egitea eta neure ustez or diran uts batzuk be agertzea. Olako azterpenak, gogo guztiagaz lan egin dabena min apurren bat emotea ba-leiteke, azterpenak edo kritikeak beti ondoren ori gugan izaten daualako, baiña osagai edo botika garratz baten antzera artu bearko dogu, garratza izan arren obetzerako bearrezkoa dan zerbait lez. Gure ekintza guztiak aztertu beaf gendukez, lanean obetzera joateko.

Ez da ain ugari egiten, zoritxarrez, aztertze-lan au gure artean. Sarriagotan izaten dira zabalkunderako gorespenak, benetakako azterpenak baiña.

Biotz onez eta gogo onez egiten dogu ba lan au eta gaiñera sarritan txarto dagozan gauzak baiña ziurrago norberaren eritxiagaz batera ez datozenak dirala kontuan dogula.

Urtebete inguru dala egin eban Gaztañaga'tar Jesus adiskideak ZER aldizkarian, argitaratzeko zan Gipuzkoa'ko Meza-Liburuaren azterpena, emen egingo doguna baiña sakonagoa ta zorrotzagoa. Ondo egingo dabe irakurleak idaz-lan ori irakurriaz, gauza asko bizkaierearentzat be baliakoak diralako.

Irarkola-lana

Irarkolan edo moldiztegian egindako lan lez ikusi dagigun lenengo. Egilleak ardura aundiaz begiratu dabe irar-lana. Ez da erreza izaten euskeraz idazten danean batez be, irar-utsak garbitzea, sarritan irarkolako langilleak erdeldunak izaten diralako.

Liburuaren izkia argia ta irakurterreza dala uste dot, naizta eritxi batzuk onen aurkakoak entzun izan: Ez aundiegia eta ez txikiegia, ondo zeaztua ta argia da izkia.

Ingurraztiratze edo «enkuadernatze»-lana be emen sartu bearko dogu eta liburua azal ederrez eta joste sendoaz egiña dala laster ikusiko dau eskuetan artzen dauanak. Orriak liburu itxian kanpoko aldetik margotuak izan bear ebela? Edo kanpoko aldetik urrez jantzia obeto agertuko zala? Bai, urre orretan aundikeri usaintxua agertuko zan eta margoa ezarteak be asko ez eban obetuko.

Orrialdeak aurkitu bear diranean errez aurkitzeko zerrendak edo «zintak» be oso egokiro datoz, ez geiegi eta ez gitxiegi eta orri-belarriak bardin, toki egokietan eta ondo ipiñiak. Aინbeste liburu argitaratzeko orretan egin bear izan dan lana be ez da txantxetakoa eta lekaimeren batzuan lana txalogarria ta eskertzekoa izan da. Ez dot onetan ezelako eragozpenik aurkitu Meza-Liburua erabiltean.

Izkien margoetan, gorritz erabilten dira antziñatik «rúbrica» izena eroan dabenak, idazpuru txikiak eta aitamen edo zitak eta olako beste gauza batzuk. Egokiro. Izki baltzaz, osterá, Idazpuru nagusiak eta irakurteko diran lerroak. Oso egokiro.

Irarrutsak kontu aundiaz zuzendu izan arren, beti geratzen dira banaka batzuk eta orreik orri aske baten datoz, zuzenketak norberak egiteko. Ba-dirala diñoe or agertzen ez diran beste uts batzuk be, baiña nik oraindiño bat bera be ez dot aurkitu. Zuzentze-lanak eginbearra antxiñatik izan dogunok, ondo dakigu lan au gatxa dala eta arrigarri begitandu jaku ain zeatz eginda aurkitzea.

Euskerea

Meza-Liburuan agertzen dana, antziñatik Bizkai'ko idazleak erabili dabena da, batez be Azkue Aundiak erabili eban bideko euskera ederra. Azkue'ren aldia izan zan Bizkai'ko euskerearen bide-kurutzea eta Arana'tar Sabin'en eta Azkue'ren jokabideak, batez be, kurutzatu ziranak. Azkue'rena urten zan nagusi, naizta idazkeran, ortografian, Sabin'en bidea izan aukeratua idazleen aldetik. Gaurkotua, baiña Azkue'ren euskerea dala esango neuke nik liburu onek eta gaurko idazlerik geienak darabilen euskerea edo bizkaiera, edozein euskaldunentzat ederra ta pozgarria.

Idazkerea

Esan dogun lez, Arantzazu'ko batzarra 1968'an izan baiño lenagokoa da egilleak artu daben ortografia, idazkerea. «Apostolu-Konstituzioan» batu antzeko euskera bat darabille baiña idazkerea bide onetatik doa, «Liturgia» «g»gaz edo olako zerbait izan ezik.

Izen bereziak eta atzizkiak banatzeko beste batzuk, Euskerazaintzaren bidekoak, gangarra (') erabilten dogun tokietan marra erabilten dau liburu onek, ori be garrantzi aundi-bako gauza da, baiña ba-dago or be bateratzea egin bearra. Bardin esan bear baietza ta baldintza adierazteko, esaterako ba-dator baietza danean eta *ba'dator* baldintza danean. Onelan guk, beste era batera liburu onek. Dana dala, txibizkeriak baiño ez diña. Beste arazo txiki bat, *itzi* «ez artzea» adierazteko eta *itxi* idegita dagoana zarratzeko erabiltean be ez gagoz batera, eta ez artzea adierazteko *itzi* erabiltea obeto dagoala uste dogu, Gipuzkoako *utzi*'gaz bateratzen dala. *Uzten* be agertzen da. *Aa* biak erabiltea izan daiteke beste ezbardintasun bat, esaterako guk *alguztiduna*, liburuak aalguztiduna, eta zarra / zaarra. Azkeneko -ea be beti ez da erabilten, esaterako liburuak *asiera* guk *asiera*, nori askorenean adierazteko -ai ala ei edo *daizala* ta *dagizala*. Beste ezbardintasun naikoa garrantzikoa, *be*, *bere* ta *ere*'rena izan daiteke. *Bere* artzea ez genduke egokitatzat joko, onék *noren* adierazteko dan *bere*'gaz nastea sortzen daualako, baiña ez genduke ontzat artuko liburu

onek artu dauan *ere* be, Bizkaia'n iñon erabiltzen ez dana dalako eta antxiñatik gure idazleak erabili daben *be'*gaz arazoa argiago geratzen dalako. «Aita *be* semeagaz etorri zan» (Euskerazaintzak); «aita *ere* semeagaz etorri zan» (Meza-Liburuak) eta «aita bere semeagaz etorri zan», illun geratzen dana. Baiña garrantzi geiago daben eta ulertzeko erreztasuna sortzen daben, *ñ*, *ll*, edo *iñ* eta *ill* erabiltzea eta ez *in* eta *il*, oso ontzat emoten dogu, esaterako *oillo* ta *baiña*, ez *olio* ta *baina*; *i'*ren ondoren *s* *naiz z datorrenean be guk iz* eta *is* idaztera joten dogu eta orrelan geienetan Meza-Liburuak be, baiña *gaixoa* agertzen da (774 orr.) *Deutsugu/dautsugu* ta abar...

Itz-osotzea

Itz-osotzean be geienez batera gagoz liburuaren jokabideagaz, baiña ezbardintasun txiki oneik agertzen dirala: *-kin* Bizkaian ez da erabilten *-gaz* edo *-kaz'*en beste, baiña liburuan *kin* agertzen da geienetan, bear ba'da gizpuzkoeratik urrago ibiltearren-edo. Itz-alkartze batzuk be banatuta obeto legokezela uste dogu, esaterako *emoizu* barik, *emon egiozu*. Dana dala, aurkezpena egin ebanean Etxenagusia'tar Karmelo'k esan eban' lez, irakurleok obeto dala ba'deritxo, irakurri ala aldatu dagike.

Sarritan zalantzea ekarten dauan beste jokabide bat *-z*, *-ez*, eta *-az* dira. Arazo oneri buruz *Euskera* aldizkarian lan luze eta zeatza idatzi eban gure Zatarain'tar Ambrosio'k, baiña orain esku-artean ez daukagun ezkerro, geure eritxia agertuko dogu: *-ez* ez litzake erabili bear izki lagundunaren edo konsonantearen ondoren baiño, *esanez*, *egiñez...* ez iñoz *etorriez* edo *ikusiez*. Baiña ez da ain erreza noz *az* eta noz *-z*, noz *ikusiz* eta noz *ikusiaz*. Erri euskaldunakaz gaia aztertu ondoren au da ateraten dana: ekintza biak aldi baten diranean *-z* da egokia, eta aldia bardiña edo bera ez danean *az*: «Jesus» *esanaz il egin zan*, lenengo «Jesus» esan eta gero *il*, eta «Jesus *esanez il zan*, biak batera jazo diranean. Jokabide au artuta aztertu dagiguzan Eukaristi otoitzak: *Zuri eskerrak emonez bedeinkatu eban*, obeto emonaz, lenengo bata ta gero bestea diralako. *Ikasleei emon eutsan esanez*, ondo, biak batera diralako. *Eriotzea ezereztuz nagusi agertu biztuerea* (413 orr.) ondo

dagoala esan lei, baiña orrialde bertan gerotxuago zure *Espiritua isuriaz* bardiña da eta *isuriz* izan bear leuke. Onetan, esan gura dana zer dan be kontuan artu bear da, esaldi bien esagurea ez da bardin-bardiña-ta. *Zure Semearen eriotza ta biztuera gogoratuz*, ondo dago, gogoratzen gagozala ogia ta kaliza eskintzen doguzalako, jarraian *zuri emonez*, bardin, batera egiten dalako. *Mundu onetan bere egitekoari jarraituz* (428 orr.), ondo, batera dalako. *Salbatzailleak agindu ta irakatsiari jarraituz*, ondo dago, esatea ta jarraitzea batera doazelako. Antzeko esaldiak ugariak dira eta ez beti zuzen, baiña ez aitzu *liburnak zer esan nai dauan* jakitea be beti ez dala erreza. Erdeldunak be olako esaldietan aspaldion erderan uts nabarmenak egiten dabez: *hubo un accidente y como consecuencia fue llevado un herido al hospital, muriendo en el camino*, orrek ilten egoala eroan ebela esan gura leuke, *baiña* obeto litzake/ *y murió en el camino*. Euskaraz be sarritan argiago geratuko litzake eta bat bitarte dala. Ez da aitzu bear euskerea esaldi bardiñen laguna dala. *Ikasleai emon eutsen esanez baiño* argiago legoke *ikasleai emon eta esan eutsen*.

Joskerea

Joskera-aldetik oso jator jokutzen dau Meza-Liburuak. Go-goan daukaguz oraindiño lenengo argitaratu ziran irakurgaiak, joskera-aldetik oso barregarriak ziran, baiña egin zan zuzentzea eta arrezkero zuzen diardugu.

Joskera arloan euskaldunik zeatzenak Bizkai'koak gara, onetan motelago jokutzen dabe giputzak eta oso itsusiak dira iparraldekoak. Bizkaiian orretarako euskal-zentzun berezi bat daukagu. Oso ederra da arlo onetan Adolfo Arejita'ren *Joskera* liburua, naiža darabilen iztegia ez izan beti egokia. Liburu orretan oso ondo aztertzen dira galdegaiaren eta esaldi «menperatuen» arazoak eta Altube'ren *Erderismos* liburua be argitasun aundia emon euskun.

Meza-Liburuan oker nabarmen bat baiño ez dot aurkitu, naiža beste oker txikiagoren batzuk be noizean bein begietara etorri. Lenengo Eukaristi otoitzean sagara-ostean dago (407

orr.), *Orregaitik, Jauna, gogoratuz guk* eta izan bear leuke: *Orregaitik, Jauna, guk... zure Semea... zeruratze miragarria gogoratuz*; eta gerotxuago: *Eskeintzen deutsugu Zuri... betiko zorionaren Kaliza, esan bear leuke: miragarria, gogoratuz, Zuri... Kaliza eskintzen deutsugu.*

Iztegia

Iztegiaren arazoa larria da gaurko euskaldunen artean. Alde batetik ulerterreza bear eta beste alde batetik garbia. Izen bariak be sartu bear, baiña neurria non dagoan errez ikusi barik.

Meza-Liburuak onetan be bizkaieraren antxiñatik datorren oiturea jarraitzen dau.

Jakiña da onetan Sabindarren jokabidea iraultzaillea izan zala, baiña orduan artutako itz eta izen batzuk errian sartu egin dira, beste batzuk ez. Zer egin? Arazo au nabarmenagóa da bear ba' da giza-izenetan et toki izenetan. Zelan esan *Jose* ala *Joseba*? *Inazio* ala *Iñaki*? *Jesus* ala *Josu*? Edo pizka bat urriñago joateko, zelan esan *Prantzia*, *Frantzia* ala *Prantze*? Edo *Nueva York* ala *New York* ala *York Barri*? Zelan esan *Cabo de Buena Esperanza*? Sarritan arau zeatzak nai gendukez, baiña ez da erreza izaten. Eurak, bertakoak esaten daben lez, baiña *Roma* ez dogu esaten, eta bertan be ez dabe esaten *Ciudad del Cabo* edo *Franzia*.

Izen arruntetan artu dan jokabidea, Azkue'gandik arrezkero Arantzazu'ko Batzarrera arte idazlerik geienak Bizkaia'n erabilli dabena da eta errez onartzekoa: *Espiritu Santua*, ez *Goteuna*; *santua*, ez *deuna*; *martina*, ez *ziñopa*; *birjiña* ez *neskutsa*...

Giza-izenetan erriak erabilli dauzanak artzen dira: *Paulo*, *Ageda*, *Pedro*, *Joan*, *Jose*, *Markos*... Erri-izenetan «*Córdoba*» agertzen da (467 orr.) eta *Aquino* (473 orr.) eta orrelan erri-izenak bertan esaten diran lez. Jokabide au ez da nabarmen agertzen eta bat artu bear izan ezkero, ontzat emotekoa da.

Liburu Eredugarria

Amaitzeko, liburu eder au Bizkaiko euskerearen eredu lez

jarri leukela uste dot eta Bizkai'ko Eleizearen euskereak bide orretatik jarraitu bear leukela beti, idazkeran (h.l.n'ren arazoan) erdi-bideetara jo barik.

Orretarako tentaldiak beti izango dira, baiña oba izango da jaramonik egin ez. Gazteen indarra beste bide batetik doala uste izaten dogu sarritan, euskal-izkuntzalari ospetsu batek urte batzuk dirala esan eban lez, baiña biderik egokiena ta erriak darabilena artu ezkeru, gazte ta eldu, guztien onerako izango da.

Zorionak egilleai eta Bizkai'ko Eleizeari.

Olazar'tar Martin'ek